

## 5. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Kanalen bitartez lortuko dugu gure proiektua merkatu-segmentuetara iristea, gure balio-proposamena helarazteko. Kanalen artean, kanal zuzenak erabiliko ditugu, gure sare sozial partikularrak gestinatuz eta baita publizitatea baliatuz.

### • **Komunikazio-kanalak:**

Bezeroengana iristeko kanal zuzenak eta kanal propioak erabiliko ditugu, online eta denda propioen bitartez webgune bat eginez, beraiekin harremanetan jartzeko komunikazio-kanal egokiena dela erabaki dugulako. Kanal propio hauekin etekin handiagoak atera ditzakegula uste dugu. Errentagarriena aldiz, Kanal zuzena litzateke. Honen kostuak nahiko baxuak direlako eta errentagarritasuna hobetzen duelako.

Komunikazio kanala bermatzeko publizitatea baliatuko dugu, bai sare sozialetan bai durangoko edo urbileko beste zenbait esparrutan, adibidez, egunkarian, astekarian... Baita deskontuak ezarriz, honela jendea (erosle potentzialak) erakarriz eta gure produktua ezagutzera gonbidatuz.

Bezeroarekiko harreman-guneak dira kanalak, eta bost fasez osatuta daude:

- Pertzepzioa
- Ebaluazioa
- Erosketa
- Entrega
- Salmenta ondorengoa

### • **Banaketa-kanalak:**

Produktuak saltzeko erabiliko dugun kanalak interneten online denda eta denda propio bat izango dira. Lehen aipatu bezala, kanal zuzenak erabiliz burutuko dugu. Komunikazio kanalean aldiz, publizitatea eta deskontu bereziak erabiliko ditugu, jendea erakartzearren.

Produktuaren banaketa eta bezeroenganako bidalketa presentziala izango, hain zuzen ere salmenta tokian gertatuko dira salerosketak edo online bidez, garraio-enpresen bitartez.

### • **Salmenta-kanalak:**

Salmenta kanala, gure produktuaren kasuan, fisikoki eta prezentzialki salduko da. Makinak banatuko du momentuan erosleak eskatzen duena.

Bezeroen ohiturekin integratu ahal izateko, adibidez, sare sozialetan agertzea izango litzateke pausu erraz eta efektibo bat, hain zuzen ere, sozietatean oso barreneraino sartuta dagoen ohitura delako eta aksezibilitate erraza eta kostu gutxikoa delako.